

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2010eko urriaren 1a  
284. zenbakia. 22. urtea



## Hamasei urte bidean

Bidegurutzean aurkitzen dira Arreta taldeko kideak; hamasei urteren ondoren, orain arte egindako lan guztia baloratzeko momentua iritsi zaie.

**05**

**Orioko kontuak**  
Bidegorria

**08**

**Kirola**  
Etxeberraren errekorra

**11**

**Aiako berri**  
Laurgaingo festak

**25**

**Herritarra**  
Joanna Domingoa

**agirresarobe** **ARKITEKTURA**  
OBRA ETA PROIEKTUAK

ETXEBIZITZA ETA LOKALEN ERREFORMA PROIEKTUAK  
FABRICA ETA TEILATZEN ERABERITZE PROIEKTUAK, IRDIBAILUEN  
OBRA ZUZENDARITZAK, IRUDIMENAK, ERREMIO KUORDINAMUNTZA

OBRA BERRICH PROIEKTUAK, HIRIBIZITZA, LURREN KUDEAKETA

MARIA KARRERANDEKO LURBIZITZA ARKITEKTURA  
MURRIDE R. S. BILKOTZA, ZARAUZ  
TEL: 943 83 1 722

 **ACTIVA**  **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abeilant, 6 - Tel./Fax: 943 83 12 47  
20809 ORIO

**uranga**  
autozerbitzua



**Aliprox**

Euzko Gudari Kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

**ALTXERRI** *Karta eraberritua*

*Asteburuan, eguerdi eta gantetan,  
meze bereziak*

943 83 07 62

**azkue**

Tf: 943 13 04 38

**Allianz** 

**Marigre Zaldua**  
aseguru agentea

Euzko Gudari, 10 behe-oina  
Telefonoa: 943 13 47 82  
fax: 943 13 57 52  
e-maila: zokua.delacruz.pa@allianz.es

 **AMILIBIA**  
ONTZIELAIAK, S. L.

lortu parturua proiektu  
eta inbentarioak

guri mailako kateketarako  
arrazoentzako

Olasoagazgia auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

**Kinkladenda - Ume arropa**

**argine**

www.lasnet.com/argine  
Tel. 943 13 48 88

2,5eko DESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

*edariategia*

**ANTILLA**  
*jateetxea*

Asteartik kalea, 2 - Tel. 943 83 29 00

**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidalak S.L.*

Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

**ARISTERRAZU**  
jateetxea

Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21



**ARIDATZA modas**

Euzko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**Automóviles ZARAUZ**

OTROEN ALBIZU-ORRIAK

trabatu berriak  
eta berriztatutakoak

ZARAUZ, TEL. 943 13 13 50

**ARKAITZ**  
Taberna

Piniñoak,  
plater konbinatuak  
eta ogilarteko mundialak

MURRIDE R. KALEA, 11 TEL: 943 83 16 57

**bodegasERRASTI, S. L.**



Eskualderako hanatzailea  
Zudugarai, Getariako txakoliak  
Ilagares, ardo gorri nafarra  
Bodegas Gailur; Señorío de Lasturgain  
Gailur eta Arlandegi,  
Arabar Errioxako ardoak

Euzko Gudari 46 ORIO • 943 83 03 88 / 83 50 52 • E-posta: bodegaserrasti@bodegaserrasti.com

## Korronte-kontra

**1**

Kuxkuxean jardun naiz KARKARA zaharretan ta, hara! nire bertso batzuk daude bertan, idatziak hain zuzen Lehen Gazte Festetan... Gauzak aldatu dira denbora horretan, ordun gaztetxe eske, gaur negoziaketan.

**2**

Denbora oso azkar doala, dedio! Gazte Festetan ere hiru edizio. Inposatuarekin ez ginenez fio, auto-antolaketa zen erremedio: beste esparruetan ez al du balio?

**3**

Ondo egindako lanen ospakizun une bihurtu da iraila uste ez bazenu'n'e. Sendotasunez baina apal eta xume, gaztetxea da orain zahar, heldu ta ume benetan herri izan daitezen bilgune.

**4**

Karrera egiten da etapaz etapa ta honek luze joko dun itxura dauka, beraz arnas hartu ta ez hasi presaka: baltsen antzera goaz orain, tipi-tapa, korronte-kontra baina beti aurreraka.

284

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com  
www.karkara.com

**Editorea**  
Karkara taldea  
kultur elkarte

**Zuzendaria**  
Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**  
Lore Berasaluze

**Erredakzio taldea**  
Irati Agirreazaldegi,  
Pat Cowie,  
Miren Etxeberria, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

**Publizitatea**  
Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**  
Lore Berasaluze

**Testuen zuzenketa**  
Miren Etxeberria  
eta Jabier Zabaleta

**Ale honetako laguntzaileak**  
Laura Garmateo,  
Iker Gurrutxaga,  
Iñaki Gurrutxaga  
eta Mikel Etxarri

**Laguntzaileak**  
Jokin Salsamendi

**Diseinua**  
Karkara taldea

**Banatzailak**  
Oihana Genoba eta  
Ane Murillo (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko,**  
**Pat Cowierekin hitz egin**  
**(695 78 07 20) edo**  
**karkara@karkara.com**  
**Prezio hauei BEZA gehituko zaie**

### LAGUNTZAILEAK



**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Agur, Aizperro, agur

Beste aro bat ere bukatu da Orioko Arraun Elkartearen historian, Aizperrorena. Josean Olaskoagak entrenadore ardura hartu zuenetik pasa diren bost urteak ez dira nolanhikoak izan, edozein ikuspegitik begiratuta ere. Normalean, kirol emaitzen aldetik begiratu ohi zaio entrenatzaile baten lanari. Alde horretatik, ona izan da Aizperroren bost urtekoa: trainerua aurten bigarren gelditu da Ligan, lau bandera irabazita, tartean Zarauzkoa. Seguru asko, inork ez zuen espero horrenbeste urte hasieran. 2007an Donostiako Bandera ere irabazi zuen Oriok Aizperroekin.

Baina, nire ustez, beste ikuspegi batek begiratuta gehiago irabazi du Oriok aro honetan: jarrera ireki eta jokaera positiboarekin, duen izaera samur eta irribarre zabalarekin, indar sinpatiko handia izan du klubean Aizperrok eta jende asko erakarri du arraunera. Baina, batez ere, bestelako meritu bat aitortu behar zaio: erakutsi digu kirol emaitza onak lortzeko, ez dagoela gerran ibili beharrik, ez taldeko arraunlariekin, ez gainontzeko klubekin; lasai eta bakean, lan ona egin daitekeela, eta gainontzekoekin harreman ona izateak onura besterik ez dakarkiola klubaren eta herriaren irudiari.

Horregatik guztiarengatik, eskerrik asko, Aizperro, bejondaiala! Eta habilen tokian zori ona izan dezaala! ■ **Herriko arraunzalea**

## Bidegorria dator

Bizikletazaleok gauza asko ditugu ikas-teko eta betetzeko: bidegorria baldin badago handik joan behar da, espaloietan oinezkoak du lehentasuna, ezin da jende artean bizikletan azkar ibili, bizikleta ezin da nonahi eta nolanhiko aparkatu... eta beste gauza asko ere ikasi behar ditu bizikletan dabilenak. Eta hori dena haurrei erakutsi behar diegu. Hori horrela da.

Okerrak ibilgailu guztiarekin egiten dira. Lehengo batean, suhiltzaileak bozina joaz egon ziren herriko sarreran, ezin zirelako herrian sartu, han zegoen automobil batek sartzea oztopatzen zielako. Oraindik ere, tarteka, motozalaren bat herriaren erdi-erditik pasako zaigu, abiada osoan, sekulako burrunbada eginenez, eta *tuboekapetik* ke pila boteaz...

Mugikortasunaren gaiak hari asko ditu, eta beste gauza asko ere esan daitezke. Nire ustez, Udalak sustatu egin behar du herri barruko joan-etorrietan oinez edo bizikletaz ibiltzea, jendeak au-

## Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com) edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

tomobila edo motorra alde batera utzi dezan. Horrek onura besterik ez dio ekarriko herriari, osasunean, lasaitasunean eta elkarbizitzan. Hori lortzeko, bizikletaz ibiltzeko aukera saritu egin behar da, hitzez eta ekintzez, jendea horretara bultzatzeko.

Gai honetan Udalak egin dezakeen onena da bizikletentzako bide osoak jartzea herri erdian herritarrei. Zorionez, hasita daude Diketiz zubiraino etorriko den bidegorriaren lanak. Bidegorri puska horrek segida izan behar du, datoren urtean, hondartzaraino. Ahalegin du gaitezen bide horretan! ■ **Iñaki Iturain eta beste bizizale batzuk**

## Elkartrukea

Gaztelania irakasten duen Frantziako mendebaldeko eskola bateko irakaslea naiz. Uda honetan, zuen herri polita bisitatzen izan naiz eta asko gustatu zait.

Nire ikasleei adin bereko ikasleekin gutunak trukatzeko aukera eman nahi diet eta horretarako prest dagoen ikas-tetxeren bat eta irakasleren bat aurkitu nahi nituzke. Nirekin harremanetan jarri nahi duenak [ana.barnand@nantes.fr](mailto:ana.barnand@nantes.fr) helbidera idaz dakidake. Eskerrik asko.

■ **Ana Barnand.** Irakaslea

## Nire tribua

Aurten ere nire tribukoak, horiak, banderarik gabe geratu gara Donostiako Kontxan. Ni eta nire tribukoak ez gaituzte ondo ikusten toki askotan: arraun munduko Real Madril garela esaten digute. Badugu antza, bai, tribu horretako-

ekin, nahiz gure tribukoak *kirolari gailaktikoen* esportatzaile garen inportatzaile baino gehiago. Ikusi besterik ez dago beste traineruetan dabiltzan oriotarren zerrenda. Gurea harrobia da, eta horrek Real Madrilatik desberdintzen gaitu. Baina badugu antzik ere. Real Madrilko tribukoek garaipenak bakarrik ospatzen dituzte, bigarren geratzea porrota delako, hirugarren, laugarren edo azkena geratzearen adinako porrota. Ez dute ospatzen bigarren geratzea, eta guk ere ez genuen ospatzen eta, nire ustez, ez genuke ospatu beharko: lehen, behintzat, horrekin ez genuen zer ospatua.


Guretzat porrota zen hori. Gure zahar asko, gure iraganeko estropalari asko, ilunpetan eta sasia sartzen ziren herri-erri banderarik gabe etortzen zirenean. Eta haiekiko errespetuz jokatu eta bakarrik banderaren errezibimendua ospatu beharko genuke. Hori, eta ez besterik. Banderaren errezibimendua horixe delako: bandera ekartzea ospatzen da, horixe delako irabaztea, eta gainerako guztia ez da irabaztea, oso estropada ona eginagatik ere. Orioko Estropalariak –gizonezkoek eta emakumezkoek– egindako lana txalotzeko eta goraiatzeko, beste egun bat jarri beharko litzateke; Orioko Estropalarien Harrotasun Eguna, adibidez. Beste egun bat, beste data batean, banderaren errezibimendutik bereizita.

Izan ere, esango nuke galtzen ari garela besteengandik bereizten gintuen ezaugarri nagusia. Hau da, besteen pare jartzen ari gara, zoritxarrez. Garaipenak bakarrik ospatzen ditugunak gutxi gara munduan. Bigarren geratu eta ospakizunetan murgiltzen direnak, berriz, nonahi ikusten ditut: tribu txuri-urdineko ekligan bigarren geratu zirela ospatu zuten, tribu zuri-gorriak ere majo ospatu zuen Kopako azpitxapeldun izatea... Guk ere horrelakoak izan nahi dugu?

Nik uste dut ezetz. Guk garaile sena geneukan –daukagu?–, eta ez irabaztearekin sufritu egiten genuen –dugu?–. Urte asko pasa ditugu kanpotarrei hori zer den azaltzen. Orain bertakoei azaldu beharko diegu? ■ **Imanol.** KARKARAK laburtua ([bertsio osoa sustatu.com](mailto:bertsio.osoa@sustatu.com) edo [zuzetu.com](http://zuzetu.com) atarrietan irakur daiteke)

## Akatsak zuzenduz

283. KARKARAN bada zuzendu beharreko kontu bat, gutxienez: ez-palen atalean, Aroa Portularrume Olidenen jaiotzaren berri eman genuen. Abizenak ez ditu horiek, ordea, Iraeta Portularrume baita Aroa. Barkatu.



Errio ondotik, Diketik moilara joan ahal izango da bizikletaz inongo arriskurik gabe bidegorriari esker. UDALEKO BULEGO TEKNIKOAK

# Dikeko muturra eta moila lotuko dituen bidegorria egingo dute

Errepideari janda egingo diote lekua bidegorriari eta oinezkoen espaloia mailara igoko dute, gainera; motordun ibilgailuen eta gainerako bideak erabat bereiziko dira.

Dikeko parkea eta herri bidegorriz lotuta izango ditugu laster. Izan ere, bizikletentzat prestatutako bidea egitekotan dira Ibaiondo pasealekuan. Orioko Udaleko bulego teknikoko iturriek adierazitakoaren arabera, irailaren 23an sartu zuten eskaera Ingurugiro eta Landa eta Itsas-Ingurune Ministerioan, eta Portu eta Itsas Zuzendaritzak eman beharreko baimena eskuan izan bezain pronto hasiko ditu lanak Urbanizaciones Xaxarki enpresak.

## Zailtasunak

Anibarko Portutik herri aldera doazen txirrindulariek oztopo garrantzitsua Ibaiondon dute, aurkako noranzkoan etortzen baitzaizkie ibilgailuak. Espaloira igotzen dira, orduan, batzuk eta ibilgailuen kontrako norantzan joaten dira beste batzuk, horrek dakarren arriskua rekin. Herriko txirrinduzale batzuek bultzatuta, Udalak irtenbidea aurkitu duela dirudi.

## Errepidea estutu

Errio aldeko oinezkoen espaloia eta errepideari janda egingo zaio tokia bidegorriari: 5 metro zabal ditu gaur egun errepideak eta 3,40 metrora estutuko da. Ezinezkoa izango da, hortaz, aurrerantzean autoa bigarren lerroan aparkatuta uztea. Bestalde, metro gutxi kenduko zaizkio espaloia –zuhaitzetatik errepidera arteko zatitxoak, hain zuzen ere—.

## ZENBAKIA

# 180

**Metro.** Dikeko parkea eta moila lotzen dituen bidegorriak 180 metro luze izango ditu. Zabalean, berriz, bi metrokoa izango da eta joan-etorriko txirrindulariak hartuko ditu. Espaloia mailara igotako bidea izango da, eta, beraz, motordun ibilgailuen eta gainerako bideak bereizita izango dira.

Gaur egun errio aldeko aparkalekuak dauden lekuan egingo dute bide berria, autoak uzteko tokia mugituz.

## Binoranzko

Bi metro zabal izango da bidegorria Ibaiondo pasealekuan eta bi noranzkoetako txirrindulariak hartuko ditu. Dike parkearen muturrean hasita, zubiraino joango da: 180 metro izango ditu guztira. Oinezkoen espaloia mailara igoko dute gainera, motordun ibilgailuen eta gainerako bideak bereiziz. N-634 errepidea pasatzeko egindako zubiaren azpiko bidea, ordea, estua da zeharo eta pixka bat zabaltzeko asmoa badago ere, pasabidea nola hobetu aztertzen ari dira Orioko Udaleko teknikariak.

Behin zubi azpitik pasata, moilara jo beharko dute txirrindulariek. Zubira igotzeko eskaileren parean bidea estua denez, bizikletatik jaisi beharko dute txirrindulariek oinezkoen pasatzen uzteko aurrena.

Bidegorria herri guztira zabaltzeko proiektua ere baduela Udalak jakin ahal izan du KARKARAK, eta urte gutxiren buruan sarea bukatuta izan genezakeela, gainera.

# Urriaren bigarren hamabostaldian jarriko da abian tren geltoki berria

Urriaren 18tik aurrera, edozein egunetan irekiko dute trenbideko saihsbide berria; ondoren, geltokiaren ingurua egokituko dute eta lan guztiak 2011ko martxorako bukatzea aurreikusi dute

Trenbideko saihsbideko lanak aurrera doaz eta orain dela hiru aste zama-proba egin ondoren, saihsbidea ez ezik geltoki berria ere abian jartzeko azken lanakegiten ari dira.

Euskal Trenbide Saretik (ETS) jakinaz duteenez, urriko bigarren hamabostaldian irekiko dute geltoki eta trenbide zati berria, goitik doana, alegia. Geltokira doan igogailua ere martxan jarriko dute.

Geltokian ez da arduradunik egongo eta txartelak erosi zein balidatu makinaren bitartez egin beharko da; zalantzak argitzeko interfonoa izango dute makinek. Komunikere ez dute jarriko geltokiaren barruan. *Udalarekin akordioaren bat lortuko balitz, baliteke geltokian ez baina kanpoan, beheko aldean-edo komun publikoren bat jartzea*, diote Euskal Trenbide Saretik.

## Ingurua egokitu

Geltoki berria eta saihsbidea martxan jartzerako, trenbideari dagozkion lan gehienak amaituta egongo dira. ETS-tik diotenez, *gero beheko trenbideak libre utzitako bidea berreskuratu eta egokituko dute, horrela, besteak beste, Aiarako trenbide-pasagunea desagertuko litzateke. Baina aparkalekua ez da zabalik egongo leku hori behar dutelako materialaren biltoki gisa. Ondoren, biribilgunea zein etorkizunean Aldundiak egingo duen saihsbidearen lehen zatia leudeke.*

Lan guztien bukaera, berriaz, datorren urteko martxorako iragarri dute.



Tren geltoki berria ireki aurretik egin beharreko azken lanetan ari dira langileak. KARKARA

## LABUR

### Kultura

#### Helduentzako bertso eskola

Aurtengo ikasturtean ere helduentzako bertso eskola martxan jarriko du Errikotxia Bertsozaleen Elkarteak. Urriaren 14an hasiko dute ikasturtea eta ostegunero, 20:00etan izango dira saioak, Errikotxiaren lokalean. 21:30ak jo arte arituko dira bertsoaren nondik norakoak ikasi eta trebatzen. Prezioari dagokionez, 35 euro ordaindu beharko du eskolak ikasturte osoan hartu nahi dituen bakoitzak.

### Txalaparta, dultzaina eta alboka

Bi ikastaro berri jarriko ditu martxan Orioko Herri Ikastolak, Orioko Udalaren laguntzarekin: txalaparta nola jo irakutsiko da, alde batetik -asteen ordubetez- eta dultzaina eta alboka ikastaroa, bestalde -asteazkenetan izango dira bakarkako eskolak, 18:30etik aurrera-. DBHko 1. mailatik gorako ikasleei eta helduei zuzendutako ikastaroak izango dira biak eta 8,15 euroko 8 kuota ordaindu beharko dira. Interesa duenak urriaren 4a arteko epea izango du Orioko Herri Ikastolako idazkarriz edo 943 83 47 04 telefono zenbakian izena emateko.

### Azpiegiturak

#### Errioko lurra aztertzen

Saihsbidearen proiektua idazteko ikerketa geologikoa egiten aritu dira Anibaroko Portuaren parean. Azterketa horiek erakutsiko dute ibaiaren azpiko luraren kota eta gogortasuna. Horrela, besteak beste, zubiaren zimenduek nolakoak izan behar duten eta euskarriek zein neurri izan behar duten erabakiko dute. Azterketaren ondoren, proiektua idazteko 2011ko martxo-apirilera arteko epea izango dute. Ondoren, jendaurrean jarriko da eta alegazio epea eta gero behin betiko proiektua egin eta hasiko lirateke lanak.

# Azoka egunak ordezkatu du kronoeskalada Goiko Kaleko jaietan

Urriaren 8an, ostiralarekin, hasita, asteburu osoan hartuko du jai giroak Goiko Kale. Musika emanaldiak, ikuskizunak, tortilla lehiaketa, jokoak, bertsolariak, jan-edana... izango dira

Azken urteotan izan duen beherakada ikusita, kronoeskalada aurtengo festa programatik kentzea erabaki du Goiko Kaleko jaien batzordeak. Haren ordeztu, azoka eguna antolatzea bideratu dituzte txirrindulari proba berezia antolatzeko gogo, denbora eta fundamentua.

Gainerakoan, ekintzez betetako programa osatu dute urriaren 8, 9 eta 10 erako: jokoak, musika emanaldiak, haur-erentzako ikuskizunak, bazkaria... denetik aurkituko du bisitariak.

## Bertako barazkien txokoa

Utzitako zapore onak eraman ditu Goiko Kaleko festa batzordeko kideak iaz lehen aldiz egindako azoka indartzera aurren. Izan ere, salmentak ikaragarriak izan ez baziren ere, bertako produktuak jaso eta eskaintzearen garrantzia azpimarratzekoa iruditzen zaie.

10 bat mahai izango ditu azokak urriaren 9an, Pilliku plazan, 10:00etatik 14:00etara: Orioko baserrietan eta herriko barazketan ekoizitako barazkiak izango ditu ardatz: tomate, letxuga, patata... Bertako barazkiekin egindako pintxo begetarianoak ere izango dira salgai, gainera.

Hala ere, izango da bestelako posturik ere: alde batetik, eta jakiekin jarraituz, Aiako gazta probatzeko aukera izango da, eta baita inguruko baserriarrek egindako sagardoa ere. Igeldoko esnea ere salduko dute beste mahai batean.

Bestalde, pazientziarekin egindako lanak erakusteko aukera izango dute herriko eta inguruotako hainbat artisauk: pitxiak, koadroak, kamisetak...

Eguna eta herritar nahiz bisitariak girotzeko eta alaitzeko musikariak ere ari-tuko dira kalez kale, goizez.



Iaz egin zen lehen aldiz azoka eta zapore ona utzi zien antolatzaileei. KARKARA

## GOIKO KALEKO FESTAK

### Urriak 8, ostirala

- 20:30** Taberna ireki
- 22:00** Bingo benefikoa tabernan
- 22:00** Mus txapelketa Aldapa elkartean
- 23:00** Bakarriketa tabernan

### Urriak 9, larunbata

- 10:00** Azoka
- 16:30** Bizikletekin zinta jokoa, zimitorioan
- 17:30** Haurrentzako *Behitso eskola* emanaldia, Musika Eskolako plazan edo Iturbide kaleko arkupeetan
- 18:30** Txokolatada Pilliku plazan

**19:00** Toka lehiaketa Pilliku plazan

**22:30** *Hamaika bertuteren bertso musikatua*, tabernan. Bertsolariak: U. Alberdi, A. Agirreazaldegia, I. Gurrutxaga eta B. Gaztelumendi. Musikariak: U. Arzamendi eta I. Ugarte. Gai-jartzailea: E. Aizpuru

### Urriak 10, igandea

- 11:00** Txistulariak
- 11:00** Barazki mahaia
- 12:00** *ak arte* Tortillak jaso tabernan
- 13:00** Tortilla lehiaketako dastaketa
- 13:30** Marisko, gitarra eta barazki zozketa
- 13:30** *Benta zaharreko mutiko alaiak*
- 14:30** Herri bazkaria

egunero-egunero.  
zuekin...

[www.karkara.com](http://www.karkara.com)

*Konektatuai!*

**KARKARA**

estilo berria

Ogitartokoak  
Plater konbinatuak  
Etxeko janaria  
Tintxoak

943 13 13 12  
Aitor eta Gorka

MASAJISTA

**Kosue**

Lunbalgia  
Kontrakturak  
Eskollosia  
Drainatze linfatikoa  
Ziatika

Abeslari kalea, 4  
Oriz  
Tf: 943 57 74 26



Pello Saizar entrenatzailea eta Imanol anaia izan zituen laguntzaile Irurako saioan . EUSKAL HERRIKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

# Idoia Etxeberriak 138 kiloko harri errektangularra jaso du

Idoia Etxeberria 17 urteko harrijasotzaileak 138 kiloko harri errektangularra bost aldiz altxatu zuen igandean Irurako plazan; emakume batek sekula plazan jaso duen harririk handiena da

Errekor saiakera egitera joan zen Etxeberria Irurara irailaren 26an. Ortzaiakoko harrijasotzailearen helburua 138 kiloko harria behin altxatzea zen, izan ere, horrekin gaindituta izango luke marka. Baina indartsu ikusi zuen bere burua eta, baten faltan, bost aldiz menderatu zuen harria. *Lehen altxaldia egiterako, gorpuzaldi onean nintzela eta indarrez ongi nengoela sumatu nuen eta hala jakinarazi nien Pello Saizar entrenatzaileari eta laguntzaile izaten dudan Imanol anaiari. Beraz, bost jasoaldi egiteko erritmoa ezarri nuen eta baita bostak lortu ere. Kanpotik ikusi zutenek bost altxaldiak berdinak izan zirela esan zidaten eta ni ere uste berekoa naiz, ez nuen igarri batean edo bestean indar handiago edo txikiago egin nuenik, dio Idoia Etxeberriak.*

## Gerrikominez

Erakustaldi bikaina egin zuen, hortaz, harrijasotzaile gazteak eta baita emakume harrijasotzaileen artean marka jarri ere. Marka saiakerak ez ezik erakustaldi

dezente egin ditu azken aldian, baina beti ere igandeko saiorako zainduz eta prestatuz; izan ere, martxotik aritu da gogor entrenatzen: *Martxoan, harri kubikoarekin marka egin ondoren, gerritik ahul nenbilela sumatu nuen, beraz, sendagilearengana joan nintzen. Hark gomendatuta, prestatzaile fisiko batekin aritu naiz ordutik egunero entrenatzen eta gerria indartu zait eta igarri dut alde.*

Beste markaren bat egitea buruan ote duen galdetuta, oraingoz ezetz esan du: *Entrenatzen jarraituko dut, baina beste lan batzutan jarriko naiz buru-belarri. Harri astunagoren batekin errekor saiakera egitekoa naizela ere entzun dut, baina ez da hala. Dena ez da pisuz handiagokak diren harriak altxatzea. Oraingoz erakustaldi batzuk egingo ditut eta, beharbada, saiatuko naiz kubikoarekin eta, aurrera begira, prestatuko dut marka saiakeraren bat pisu gutxiagoko harriren bati altxaldi gehiago emanez. Hori, ordea, ikusteko dago.*

## LABUR

### Surf txapelketa

#### Agote eta Etxeberria aurrena

Ruth Aramendi, Mikel Agote -16 urtetik gorako gizonezkoen artean-, Lander Zumeta -16 urtetik beherako artean- eta Fermin Lazkano -longboard kategorian- izan dira irailaren azken asteburuan jokaturako 17. surf txapelketako irabazleak. Olatuak lagun, gustura agertu da probako antolatzaile eta Orioko surf taldeko presidente Andoni Fernandez, txapelketa ona izan dela adieraziz.

### Atletismoa

#### Behobia-Donostiarako autobusa

Azken urteotan bezala, Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko duten korrikalariek autobusez joateko eta etortzeko aukera izango dute. Karela kiroldegian eman beharko dute izena interesatuek eta 10 euro ordaindu.

### Arrauna

#### Jose Luis Agirre entrenatzaile

Orioko Arraun Elkarteak adierazi duenez, Jose Luis Agirre Arruti izango da datorren denboraldian Mirotsa ontzian arituko diren arraunlarien entrenatzaile. Urte askoan aritu izan da Agirre Orioko tostetan arraunean.



# “Sustraiak bota eta saskibaoia errotzera gatoz Oriora”

## Asier Fernandez

Saskibaloiko entrenatzailea

Gipuzkoako Ligan federatutako kadete nesken taldearen entrenatzaile arituko da aurten Asier Fernandez oriotarra, hiru urtez Zarauzko taldeak trebatzen aritu ondoren. Datorren asteburuan hasiko dute denboraldia

### L. BERASALUZE

Aspaldiko urteetan saskibaloiak Orion izan duen hutsunea bete nahian dabilta Zarauzko Saskibaloï Taldeko (ZAST) ki-deak. Aurreko ikasturtean federatutako talde bat sortuta, hiru seguru dira aurten eta laugarrena ere bidean da.

#### Batetik laura urtebetean. Kontxo...

Ainhoa Fernandezek atera zuen iaz taldea, infantil neskekin. Horiek dira aurten nik hartuko ditudanak. Kategoria bereko beste neska batzuk entrenatuko ditu berak eta infantil mutilak Iker Gurrutzagak. Orioko Herri Ikastolatik ateratako taldeak dira denak, Zarauzko elkartearen babesean arituko direnak.

Laugarren taldea bestelakoa izango da. Saskibaloian jokatu nahi duten senior kategoriako mutilak bere kabuz el-

kartzan ari dira eta taldea sortzekotan dira, itxura guztien arabera. Oriotarrek eta zarauztarrek osatuko dute. Ligan izena emana dute eta kamisetak lortzeko zain daude.

#### Haurrenak ere talde irekiak al dira?

Momentuz ez. Saskibaloia altxatzeko asmoz etorri ziren zarauztarrek Oriora eta bi eskolei baldintza bereko proposamenak egin zizkieten. Orioko Herri Ikastolarekin bakarrik lortu dute hitzarmena egitea eta, hortaz, ikastolako ikasleek osatu behar dute taldea, nahitaez.

#### Hiru urte Zarautzen pasata etorri zara Oriora.

Kuriosoa da, baina neskek entrenatu ditut beti, gaur arte, behintzat. Infantilekin eta kadeteekin aritu nintzen Zarauzko lehen bi urteetan. Senior kategorian jardun nuen iaz, bigarren entrenatzaile.

Oriora etorrita ere, neskekin nabil. Hala tokatu zait, gehienetan ez baitu norberak aukeratzen prestatuko duen taldea.

Zarautz ala Orio, biak parez pare jarrita, aukeran, nahiago etxean aritu.

#### Gustura al zaude talde berriarekin?

Oso gustura, uste baino hobeto moldatu naiz. Egia esan, taldea egina dago; elkar ezagutzen dute eta ez dira jokalaria sueltotok soilik, urteak daramatzatelako elkarrekin jokatzen. Alde handia da hori.

Bestalde, adin zaila dute: 14-15 urte eta denok dakigu zer darabilgun buruan adin horietan. Ez da erraza izaten gazte horiek dominatzea eta, hala ere, uste baino hobeto egin naiz taldera. 25 urte ditut nik eta gaztea izanik, lagun izateko moduan naiz. Gainera, fundamentuarekin dabilta: 12 jokalaria ditut eta, gehienetan, guztiak etortzen zaizkit entrenamenduetara hutsik egin gabe. Asko baloratzen dut hori.

### “Kadete neskek entrenatzen ditut nik; infantil neskek, Ainhoa Fernandezek eta infantil mutilak, Iker Gurrutzagak”

“Saskibaloiarekin gozatzea beharrezkoa da, berriro itzultzeko gogoia izan dezaten. Gazte guztiek joka dezaten saiatuko naiz ni, nire aldetik”

#### Zein helburu jarri dituzu aurtengo ikasturterako?

Zaletasuna sortu nahi dugu aurrena; sustraia botatzen hasi, hemendik urte batzuetara talde bana izan dezagun kategoria bakoitzean. Beharrezkoa da, horretarako, haurrek saskibaloia egiten dutenean ondo pasatzea, kirola egiten gozatzea, berriro itzultzeko gogoia izan dezaten. Guztiek joka dezaten saiatuko naiz ni.

Karela kiroldegian jokatuko dira partidak eta jendea hara erakartzea ere bada gure nahia. Gustura hartzen da jendea harmailtan ikustea; anima ditzatela jokalaria eta, bide batez, gustura ikus dezatela norgehiagoka.

Azken finean, herriarentzako onuragarria dela iruditzen zait; zenbat eta aukera gehiago izan, orduan eta aberasgarriago izango direlako Orioko herria eta oriotarrak.



KARKARA

# Aiako berri



KARKARA

“Mermelada egin nahi dut, bizitza-filosofia eta ekologia errespetatuz”

## Maider Lopez Monreal

Mermelada egilea

Andatzen sortua, auzora itzuli da Maider lantegia jartzera, bizitza-filosofiak eta ekologiak lagunduta. Hemendik aurrera mermeladagintza ogibidetzat izan nahi du eta fidela izan aukeratu duen bizimoduari

### PATCOWIE

#### Nolatan hasi zara mermeladak egiten Andatza auzoan?

Hemengo naiz; ama, Carmen Monreal, Andatzako eskolako maestra izan zen 15 urtean eta aita, Reynaldo Lopez, eskultore eskolaren sortzailea. Lursaila nuen hemen, Zabalegin egin nituen ikasketak eta senarraren laguntzarekin hasi nintzen mermelada ekoizten iaz. Halere, dirua irabaztea ez da dena, baizik eta nola

irabazten dugun; hau da, produkzioa energia iturri berriztagarrien bidez lortu nahi dugu eta bide ekologikoa hartu. **Zaila egin zaizu hasiera?**

Diru aldetik, bai. Askok mugitu naiz tratu onak lortzeko, eta denbora asko eman dugu guk geuk gauzak egiten; bitartean, biok lan egin dugu hemendik kanpo. Gogorra izan da, baina bikotea indartu egin da elkarrekin helburu bat izan dugulako.

Osasun Saileko arauak errespetatzea ez da zaila, are gutxiago lantegia horretarako eraiki baduzu, eskatzen dutenak

errazten baituzu lana, garbiketa egiteko, esaterako.

#### Zer osagai erabiltzen duzu?

%25 etxeko fruta da eta gainontzekoa inguruan erositakoa, Elkanoko norbaiten sagarrak, esaterako. Marrubia, ahabia (arandanoa), udarea, sagarra, albertyi-

“Produktu ekologikoa ez da garestia: gauza onari dagokion prezioa du. Jakin behar dugu zer eta nori erosten ari garen”

“Osagaia fruta denez, sagardoak eta ardoak bezala, mermeladak inoiz ez dira berdinak izaten, baina on-onak egiten dakigu”

koa, arana, gereziak, kiwiak eta kalabaza erabiltzen ditut. Bereziarena, akaso, kalabazarena da, laranja eta limoia ere badaramatzalako. Askok dagoen garaian izozkailuan gordetzen ditut, lan erritmoa kontrolatzeko. Dena ekologikoa da, kontseiluaren eta elkartearen arauak zintzo errespetatuz eginda.

#### Eta saldu, non saltzen duzu?

Azoketan, inguruko dendetan, Iturriozenean adibidez eta, orain dela gutxi, batez ere, turistek begira sortu ditugun sortetan. Udalaren eta Aiako ekoizleen elkarlanari esker lortu dugu. Esperantza handia dut horietan; opari paregabeak iruditzen zaizkit erakusteko zer dugun. Bizitzeko, 450 pote saldu beharko nituzke hilerok, soldata duina lortzeko, eta erdia jasotzen ari naiz azoketan, zuzeneko salmenta eraginkorra baita. Baina ez da nahikoa.

#### Askotan esaten du jendeak produktu ekologikoak garestiak direla.

Ez dira garestiak: produktu onari dagokion prezioa du. Jakin behar da zer eta nori erosten ari zaren, zuzenean edo internet bidez, akaso. Nire webguneak [www.aiakoana.com](http://www.aiakoana.com) du izena. Horrela, norbere kabuz kalitatezko gauzak egiten saiatzen ari denari laguntzen diozu, eta, bide batez, natura babesten duzu.

#### Zer diozu bezeroari buruz?

Hemengo askok ez ditu zapo berriak probatu nahi, baina animatu egiten ditut Euskal Herriko produktua dela esanez, bai osagai aldetik zein ekoizle aldetik ere, eta hori baloratzen jakin behar dugu. Bestalde, osagaia fruta denez, jakin behar da, ardoak edo sagardoak bezala, mermeladak sekulan ez direla bi berdinak izaten, baina on-onak egiten ditugu.

# San Migel festa bete-betean dabilta Laurgaingo auzotarrak

Irailaren 29an hasi ziren jaiak, txupinarekin, eta urriaren 3an, ordu txikietan, bukatuko dira, Tapia eta Leturia eta Ostolaza trikitilarien erromeria doinuekin



Irailaren 29an, San Migel egunean, hasi zituzten jaiak Laurgainen. KARKARA

Sanmioletan buru-belarri sartuta dabilta Laurgain auzoan. Irailaren 29arekin, San Migel egunarekin, hasi zituzten jaiak asteazkenean. Goizeko 11:00k jo aurretik –10:45ean, hain zuzen ere– bota zuten jaien hasiera iragartzen duen txupinazoa, plazan.

Meza izan zuten ondoren, 11:00etan eta, auzotarren trikiti doinuez lagunduta, hamaiketako goxoa eman zuten laurgaindarrek Atsedean Toki elkartera bertaratu ziren guztientzat; izan ere, Aiatik jende asko jaisten da urtero festara.

Herri kirolekin gozatzeko aukera izan zuten gero eta harria jasotzen eta aizkoran gogor aritu ziren Lardarbidetara eta haren kideak.

## Asteburuan

Osteguna salto eginda, ostiralean jarraituko dute festek Laurgainen. Auzo afaria izango da 21:00etan eta Izer eta Alabier trikitilarietara hankak astinduz arituko dira gero. 100 lagun inguru espero dituzte elkartean.

Igandean, berriz, mus txapelketa jokatuko dute, 16:30etik aurrera. Parte hartu nahi duten guztiek 16:00etarako eman beharko dute izena, Atsedean Tokin.

Tapia eta Leturia eta Ostolaza trikitilarien emanaldiarekin agurtuko dira sanmielak datorren urtera arte, aurtengandean ez baita jairik izango. 23:00etan hasi eta goizeko ordu txikiak arte arituko dira panderoa eta eskusoinua astintzen.

Garai batean, iraileko lau igandeetan izaten zen festa Laurgainen San Migelen aitzakian, baina 30 urte inguru dira jaiak asteburu bakarrean ospatzen dituztena, festa-giro ederrean.

## LABUR

### Birziklatzea

#### Organikoarentzako poltsak

Aurtengandean bertan kaleko hainbat tokitan jarritako edukiontzi marroietara bota aurretik, etxean, horretarako propio egindako poltsetan pilatu behar da zabor organikoa. Udaleko iturriek jakinarazi dutenez, eskuragarri daude poltsa horiek eta udal txetxetik pasa beharko da jasotzera.

### Kirola

#### Nerea Amilibia Malaysian korrika

Nerea Amilibia korrikalari aiarra mendilerroan Munduko Kopa jokatzen ari da Euskadiko selekzioarekin. Maiatzean hasi zuen denboraldia, eta urriaren 23an eta 24an jokatuko du 21 kilometroko azken proba Malaysian, Borneo irlako Kinabalu mendian, eta zuen ametsa bete egingo du. Lasterketa Bertikalen Euskal Kopan ere lehen emakumea izan da Amilibia behin proba guztiak jokatuta.

### Ikastaroak

#### Goiz Argin

Helduentzako eskulanak egiteko ikastaroak antolatu ditu Udalak. Urriaren 5ean hasita, bi eskola izango dira, Goiz Argi aretoa: hari lanak egingo dituzte asteartean, eta egurrekin, metalarekin, eskaio-larekin, telarekin... arituko dira ostegunean, 15:00etatik 18:00etara. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte Kutxako 2101 0027 31 004156055 zenbakian eta udaletxean utzi ordainagiria.

## Agorregiko burdinola eta errotak

**U**da bukatu da eta udararekin batera, gutako askoren oporrak ere bai. Lanera bueltan, lehenengo eguneko galderarik errepikatue-na, zalantzarik gabe, *Ta hi nun ibili haiz oporretan?* izan ohi da. Erantzunak, denetarikoa: Pirinioetan, Afrikan, Tailandian, Argentinan... Opor ondorengo solasaldi hori, munduko herrialde askotan errepikatuko da ziurrenik eta ziur gaudela, solasaldi horietako bat baino gehiagotan agertuko dela Pagoetaren izena.

Oraindik harrিতa uzten bagaitu ere, munduko txoko askotako opor osteko komentariotan aipatuko dira Iturrran eta Agorregi. Aurtengo udan espainiar estatuko bisitari ugari izan ditugulako, baina baita frantziarrak, alemaniarrak,

ingelesak, holandarrak, Txilekoak, Argentinakoak, eta abar.

Udan Pagoetako Parke Naturalean izan ditugun bisitarien jatorri aniztasunaz aparte, azpimarratzekoak dira kopuruak: uztaila eta abuztuan 4.237 pertsona pasa dira Iturrrandik eta 3.917 Agorregitik. Gehienak familian, baina izan ditugu taldeak ere. Adibidez, Iturrrandik 3.345 lagun pasa dira banaka eta 892, taldeka. Agorregin berriz, 3.286

**Askotan ez gara jabetzen etxetik gertu toki zoragarriak ditugula eta Agorregin, esaterako, XVIII. mendeko burdinola ikus dezakegula martxan**

lagun pasa dira banaka eta 631, taldeka.

Hemezortzi urte igaro dira Agorregiko burdinola eta errotak zabaldu zirenetik eta atzerriko makina bat jende bertatik igaro den arren, inguruko herrietako asko da oraindik etorri ez dena. Hara nola diren gauzak! Askotan ez gara jabetzen etxetik gertu toki zoragarriak ditugula eta ez dakigu Agorregin, esate baterako, XVIII. mendeko burdinola hidrauliko bat ikusi dezakegula martxan.

Kuriositate moduan, ezin aipatu gabe utzi abuztuaren 26an izan genuen Alemaniako telebista baten bisita. Bost laguneko taldea etorri zen Euskal Herrira eta, besteak beste, Guggenheim museoa, Kontxako badia, Arantzazuko Santutegia eta... Agorregiko burdinola eta errotak grabatu zituzten.



### Panderoa astintzen

Uda bukatu da eta ikastaroak hasi

Bukatu da uda. Orain ikasturteari hasiera emateko unea da: eskola, kirolak, hizkuntza ikastaroak, dantza, gimnasia eta musika-tresnaren bat jotzen ikasteko aukera -gurean, pianoa, panderoa eta gitarrak, besteak beste-. Hemen dituzue Aritz, Maddi, Ane eta Estitxu iaz egin zuten kurtsu bukaerako jaialdian.



## LEHORREANERE ARRAUNZALE

**B**urgosen jaio eta bizi da ondoan ageri den mutikoa: hiru urte handi egingo ditu Mariok. Hangoak, ditu gurasoak ere, baina Orion badu familia: Jose Luis Domingo eta Josefina Ondozabal oriotarren birloba da, hain zuzen ere, Jose Luise Domingoren partetik.

Txikiak zirela, askotan etortzen ziren Marioren aitona-amonak gurera, bisitan. Haurrak, aldiz, ez du oraindik Orio ezagutzen. Hala ere, eta lehorrekoak izanagatik ere, gustukoa dute arrauna beren etxean; eta argazkian nabaritzen ez bada ere, Kontxa egunean gure artean ibiltzeko modukoa dela argi dago; traje hori-horia jantzita ageri baita Mario, irribarrez. Zapata txikietako lokarriak ere kolore berekoak dira: horiak.

Gurasoen besoetan etorriko da agian Mario datorren urtean estropadaren bat edo beste ikusi eta bertatik bizitzeko.

ARGAZKIA: JOSEFINA ONDOZABAL

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki bereziren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Carmen eta Txomin  
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

#inturak  
**ELKAR**

pintura eta paperatze lanak  
zoru leunketa

Agostiada Industrialdian  
943 81 18 45 / 410 61 83 28  
ZARAUTZ

Igo zuretzat haize berrietara!

Galerna I

943890416 / 677149934  
galerna1oris@hotmail.com

# Arreta Pagoeta taldea: 16 urteko bidea

## Arreta taldea

Pagoetako Parke Naturaleko zerbitzuen arduraduna

Parkeko harrera lanez eta beste hamaika gauzaz arduratzen diren taldekideek, **16 urtean hainbat proiektu eta aurrerapenetan** parte hartu ondoren, lehiaketa batera aurkeztu behar dute orain. Momentu egokia iruditu zaigu haiekin elkartzeko, atzera zein aurrera begirada bat egiteko.

### TESTUA: PAT COWIE

#### ARGAZKIAK: ARRETA TALDEA ETA PAT COWIE

Sei emakumek osatzen dute Arreta taldea gaur egun: bost aiarrek — Josune Azpiroz, Mila Ruilopezek, Aran Aldaik, Amaia Agotek eta Iruke Aldaik — eta azpeitiar batek, Maite Azpiazuk. Pagoetako Parkearen lanaren kudeaketa lehia-

ketara atera denez, bidegurutzea zeharkatzeko unean elkartu gara 16 urteko bideaz hitz egiteko.

#### Non abiatu zen 16 urteko bidea?

Pagoetako Parke Naturala Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eta Aiako lurretan dago, beraz, logikoa zen herritarrak aukeratzea Parkeko harrera lanak egiteko, 1994an. Gazteak ginen, gehienbat ikasleak, eta batik bat asteburuetan egi-

ten genuen lan hasieran; gaztetasunak eta proiektu berriak interes handia sortzen ziguten. Anjel Lertxundi, Aran Aldaik, Garbiñe Azpiroz, Iona Rekarte, Jokin Azpiroz, Josune Azpiroz, Joxe Aldanondo eta Mila Ruilopez ginen aurreneko kideak. Aiarrak izanik, bertako berri bagenekien ere, gure herria eta bertako natura eta kultura ezagutzen eta ezagutzera ematen hasi ginen.



Herritar batzuek pentsatzen dute Diputazioaren langileak garelako, baina ez da horrela. Kultur talde bat sortu genuen, hasiera hartan irabazi-asmorik gabekoa, eta Arreta jarri genion izena, Aiatik Pagoetara bidean igo behar den Arreta mendi gainaren izena hartuta eta, bide batez, aurrerantzeko zeregina argituz: arreta eskaintzea herriari, Pagoetako Parke Naturalari eta bertaratzen den bisitariari.

### **Eta denboraren joanean, zuen zeregina gero eta handiagoa izan da.**

Hala da. Proiektuak aurrera egin ahala, gure ardurak ere gehitu dira, beharrei erantzuteko: begirale eta gidaritza lanak Erlategian eta Lorategi botanikoan eskolako haurrekin, ibilaldi gidatuak, Agorregi burdinolan eta errotan bisita gidatuak... Herrira ere zabaldu genuen gure lana, haurrentzako udalekuak antolatzen hasi baikin. 1998an, hasierako lagun Aran, Garbiñe, Josune eta Milak enpresa sortu genuen, Arreta Aia CB eta, urte berean, Pagoeta Parke Natural izendatu zuten. Denbora gutxira, Amaia Agotek hartu zuen Garbiñeren lekua.

Bestalde, hezkuntza prestakuntza ezberdinetakoak ginen: Pedagogia, Psikologia, Ingurumen Zientziak, Euskal Filologia, Dietetika eta Giza Elikadura eta Zuzendaritza Idazkaria eta etenik gabe jardun dugu gure burua prestatzen, ingurumen hezitzaile izateko eta baita enpresak egoki kudeatzeko ikasketak eginez.

### **Gaur egungo egoerara iritsi arte.**

Bai. Gaur egun —izaera juridikoa aldatuta eta orain Arreta Pagoeta SLL izenarekin— 6 emakumek osatutako Ingurumen Hezitzaile enpresa gara: 5 Aiakoak eta bat Azpeitiakoa. Lehengo Amaia, Aran, Josune eta Mila bazkide dira, eta Irune Aldai eta Maite Azpiazu ditugu kontratatuta. Beste batzuk ere lanean jardun dute gurekin batera zeregin handia izan dugun garaian, haien artean KARKARA honen azalean azaltzen den Asier Goia.

Asko zabaldu da gure ardura garai batekoaren aldean. Gaur, Pagoetako Parke Naturaleko zerbitzu guztiak, Ingurumen Hezkuntzakoak zein aisialdikoak, denak egiten ditugu. Horiez gain, herriari udaleku irekiak antolatzen ditugu, eta bestela sortzen diren lanak ere egiten ditugu; esaterako, egin berri dugu Aiako Turismo Baliabideen Gida, udalak eskatuta.

Bertakoa izan edo kanpokoa izan, ingurune hau ezagutzera hurbiltzen den oro Iturranera gerturatzen saiatzen gara, zuzeneko informazioa jaso dezan. Parkearen erabilera publikoaren helburu nagusiei jarraituz eta bertako biztan-

“Gazteak ginen, gehienbat ikasleak, eta batik bat asteburuetan egiten genuen lan hasieran; gaztetasunak eta proiektu berriak interes handia sortzen ziguten”

“Gaur egun sei emakumek osatutako Ingurumen Hezitzaile enpresa gara —bost Aiakoak eta bat Azpeitiakoa— eta asko zabaldu da gure ardura lehengo garaiarekin konparatuta”

“Bertakoa izan edo kanpokoa izan, ingurune hau ezagutzera hurbiltzen den oro Iturranera gerturatzen saiatzen gara, zuzeneko informazioa han jaso dezan”

“Benetan zaila izan zen Iturran eraberritu zuten garaia. Lanean jarraitu genuen horretarako propio jarri ziguten egurrezko eraikin batean. Erotzekoa zen, eta hotz galantza pasa genuen neguan”

“Enpresa bat sortzen ikasi dugu, eta egitea gustuko duguna ogibide bilakatzen”

“Nahi dugu eta espero dugu Arreta Pagoeta SLLren etorkizuna hemen izatea. Uste dugu 16 urteotako esperientziak balioko digula hemen lan egiten jarraitzeko”

le izateak ematen digun ezagutza erabiliz eta, bai, maitasuna ere erakutsiz, 16 urtez dihardugu. Ez da gutxi!

### **Nolako bisitariak izaten dira?**

Lehen Hezkuntzakoetatik batxillergoetara ezagutza zabaltzeko hamaika aktibitate ditugu hainbat gaitan banatuta: erleak, elikadura eta ingurumena, animaliak, landaretza, ekosistema, lorategi botanikoa, Agorregi, burdingintza, errotaritza...

Bestelako bisitariak ere izaten ditugu, hala nola euskaltegiak, jubilatuen taldeak, udalekuak, mendi taldeak, enplegu tailerrak, nekazal eskolak edo herritarrik. Bisita gidatuak egiten ditugu, guztia ezagutarazteko eta guztiarekin gozatzeko.

### **Eta Landare Berezien Azoka ez duzue aipatu oraindik.**

Gauza askoz eta diferenteez arduratzen garenaren seinale! Bai, Landareen Azoka ekimen berezi bilakatu da eta milaka bisitari izaten ditugu. Gero, ikusten dugu urtearen joanean baduela eragina, asko aurrenekoz azokara etortzen baitira, baina, gero, beste guztia ezagutzera itzultzen dira.

### **Halakoetan zenbakiak esanguratsuak izango dira, noski.**

Hala da. 2009an, adibidez, 33.756 laguni eman genien arreta harreran, 272 eskola talderi, 6.442 ikasleri eta 68 umeri udalekuan. 2010a bukatu gabe dago oraindik, baina Landare Berezien Azokan, esaterako, 10.000 bisitari izan ziren. Horrela ikusita, izugarria da!

### **Zailtasunak ere izango zenituzten bide luze honetan?**

Izan dira, jakina! dena ez da erraza izan! Adibidez, garai batean parkeak koordinatzaile bat zuen, baina azkenean haren zereginak eta ardurak gure gain etorri ziren.

Geroxeago, benetan zaila izan zen Iturran eraberritu zuten garaia. Urte eta erdi pasa zuen Iturranek itxita. Beste leku asko itxi egingo zen egoera horretan eta kitto, ez da? Ba guk han jarraitu genuen, aparkaleku ondoan jarri ziguten egurrezko eraikin batean, nola hala lanean, bitarteko minimoekin; gainera, baserriko obraren gorabeheren gainean egon behar genuen eta erakusketa berri tze lanetan. Erotzekoa izan zen. Eta hotz galanta pasa genuen neguan!

### **Lorpenik handiena?**

Hasiera batean, maitasunez interesa pizteak eta gauzatxo batzuk egiten hasiteak gure herrian bertan lanpostu bilakatu izana.

### **Etsipenik?**

Bai, aldaketa egoeretan behin baino gehiagotan, baina erabakiak hartu bitartean. Erabaki horien ondorioz izan da





gure bilakaera, eta hemen gaude. Beraz, atzean geratu dira.

#### **Zer ikasi duzue?**

Pagoetako eta Aiako berri ikasi dugu, gure aurrekoen bizimodu eta bizi ohituraren berri. Parkearen eta gure herriaren natura eta kultura balioa ezagutu eta jendeari hori helarazten ikasi dugu, ingurunea errespetatzen eta horrek duen garrantziaz ohartarazten. Enpresa bat sortzen ikasi dugu, eta egitea gustuko duguna ogibide bilakatzen.

#### **Kolaborazio asko egin dituzue talde eta erakunde oso diferenterekin. Horrek zer eman dizue?**

Hainbat kolaborazio egin ditugu beste enpresa edota erakundeekin (IKT, Mendi Federazioa, Galemys, Urola Kostako Mankomunitatea...), baita komunikabideekin ere, Aia-Pagoetako informazioa bideratuz liburuxka, argitalpen eta beste lanetarako. Tarteka gure apurtzioa egin dugu KARKARAN ere!

#### **Eta etorkizunean zer aurreikusten da?**

Bada, momentu honetan lehiaketa baten atarian gaude. Aldaketa garaia da. Gipuzkoako Parketxe Sarea (GPS) Fundazioa sortu da parketxe guztietako zerbitzuak kudeatzeko eta, horren ondorioz, Pagoetako lana lehiaketara aterako da urriaren 4an. Beraz, guk etorkizun hurbila dugu bistan. Nahi dugu eta espero dugu Arreta Pagoeta SLLren etorkizuna hemen izatea. Herriarekiko eta inguruarekiko dugun lotura zuzena da. Bertakoak izatearen sentimenduak, ingurua ondo ezagutzeak, bertako usadio, istorio eta bizipenak ezagutzeak eta transmitzeak, eta urteetako eskarmen-tuak gure *arreta* lanaren kalitatea bermatu du.

Besteen aurrean egindakoa eta egiten dakiguna *saldu* behar dugu. Konturatu gara batzuetan ez dugula behar bezala asmatzen horretan, baina iritsi zaigu lortutakoaren balioa goraiatzeko unea. Uste dugu 16 urteotako esperientziak balioko digula eta hemen jarraituko dugula lan egiten eta bizitzen; hala nahi genuke behintzat!

#### **Dirudienez, herritarrazuekin daude.**

Hori espero dugu. Badakigu herritarrei esker gauza pila ikasi dugula eta jarraitzen dugu ikasten baten bat etortzen deanean eta inguruko gauzez edota base-rietz hitz egiten hasten garenean.

Kuriosoa da, baina herriko batzuk inoiz ez dira hona etorri. Hori dela eta, herritarraz gonbitatu nahi ditugu bisi-tan etortzeko, bai baitakigu asko eta asko behin ere Iturraranen edo Agorre-gin izan gabeak direla. Autobusak jarri nahi ditugu jendeak goiz-pasa gurekin egiteko. Zatozte, gure herriaren berri-elkarri kontatuko diogu!

## ARRETA TALDEA URTEZ URTE

1994: Arreta Kultur Taldea sortu. Parkean harrera lanak egiten hasi.

1995: Lardizabal Eskolako ingurumenari buruzko jarduerak antolatu.

1996: Agorregin harrera lanak eta bisita gidatuak egiten hasi.

1997: Udaleku irekiak antolatzen hasi 3-11 urte bitartekoentzat.

1998: Arreta Aia CB ingurumen hezitzaile enpresa sortu. Pagoeta Parke Natural izendatu.

2003: Aia-Pagoeta aurreproiektuan hasi. Foru Aldundiarekin elkar-lanean Udazkeneko Azoka antolatu.

2003: Landare Berezien Azokaren antolaketa lanetan hasi.

2004: Aiari buruzko liburuxka egin, Udalak eskatuta.

2005: Izaera juridikoa aldatu eta Arreta Pagoeta SLL enpresa sortu.

2005-2007: Aia-Pagoeta proiektuan Iturrarango berrikuntza lanetan jardun. [www.aiapagoeta.com](http://www.aiapagoeta.com) web guneko edukia prestatu.

2005-2008: Bizkaiko Gallartako Burdinjaia azokan Agorregiri buruzko standa jarri.

2007: Sagastizabal Natura Eskolako jarduerak bereganatu Pagoetako hezkuntza eskaintza bateratuz. Iturraran berritua inauguratu.

2008: Iturrarango Sagarren I. Erakusketaren antolakuntzan lagundu Aldundiko Nekazaritza Departamentuko ei.

2010: Aia Parte Hartzen turismoa sustatzeko prozesuan parte hartu. Turismo Baliabideen Gida egin, Udalak eskatuta.

# Joan da uda

**U**rak dakarrena urak daroa. Eta udak dakarrena udazkenak daroa. Pasatua da dagoeneko festa giroa, hondartzako beroaldia eta oporren haur dantza. Eta baita ere arraun munduaren abarrotsa. Hala ere, moila bazterretik garbi dakusagu traine ruaren aierua, erriotan behera, itsasoaren zabaltasunean pixkana desagertuz. Iraileko eskandalu eta gatazken ondoren atsedena hartuz, lan onaren saria magalean duelarik, isil-isilik denen errespetua eta gorazarrea lagun. Nahiz eta Kontxa ez irabazi, garaile. Eta hori ez da erreza gure herrian; aurrena egin gabe irabazle izatea.

Zorionez, arraun mundua, gizartea bezala, aldatu da azken urteotan eta orain, bandera ez irabazi arren, ikasi dugu arraunlarien lana estimatzen. Lehen trapaak bakarrik balio zuen. Galdu edo irabazi. Aurrena edo azkena. Baina eskerrak aldatu dela; ze ez baita bidezkoa dena edo batere ez filosofia.

Baina aldaketak ez dira soilik horretara mugatzen. Aurtengo kasua duela berrogei urte eman balitz (Kontxa irabazteko faborito nagusiak segundo eta erdiko bentaja izan eta bigarren igandean hirugarren egitea hoge segundo galduz) tongoaren mamua zabalduko zen bazterretan. Orduan *tongo* gora eta *tongo* behera izango zen. Baina gaur egun, modernitatearen garai hauetan, *doping*-a da dena estaltzen duen hitz magikoa. *Dopinga* gora eta *dopinga* behera.

Pasa gara faborito-galtzailea susmargarri izatetik, ezusteko garailea zalan-tzan jartzera. Hori bai dela aldaketa kul-

**Zorionez, arraun mundua aldatu da azken urteotan eta, orain, bandera ez irabazi arren, ikasi dugu arraunlarien lana estimatzen**

turala eta ez globalizazioa!

Baina aurtengo udan, arraunaz gain, izan dugu herrian beste albisterik ere. Anibarko Portu maitatu honetan kaleko farola guztiak aldatu dizkigu Udalak zorionez.

Duela zenbait urte neronek egin nuen kale-argi horiek eraldatu beharraren aldarria KARKARAN. Farola haiek argi gehiegi botatzen zuten eta goiko aldea gardena zutenez teilaturaino argitzen zituen etxe guztiak, energia alferrik galduz eta bizilagunak molestaturik.

Urteetan elektrizitatean dirua xahutu ondoren, kontsumo gutxiko bonbilak ipini dituzte, farola bakoitzari txapela jarri diote eta orain zerura ez dute argirik alferrik botatzen.

Eta Udalari esker, gauean, balkoira ateratzean, gora begiratu eta ortzian ilargia eta lainoak ikusten ditut berriro. Hantxe goran, dir-dir eginez, izarrak eta hitzarmenaren aldeko H urdina duten bandera zuriak leihotetan eskegita.

**Gabon**  
TABERNA  
Plater kaxkaxak, depurtxoak  
Tfnos: 943 83 06 09

**AHOLKULARITZA**  
Fiscal, laboral, kontablea  
**Eugenio Garmendia**  
ASEGURU ARTEKARIA  
IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**HAIZE BERRI**  
saborra-jatorria-kalitatea  
Plater konbentua, bokatak, hamburgerak, rucioak, agurketa menua...  
ETA ETXERA ERAMATEKO SERBITZUAK  
Dakur 1000000, 01001 48 110 03 11. Aurreko gizona bira

**iSLada**  
BESOTIKO ZENTROA  
Sabella De Miguel - Saray Cendoya  
Bakarmen kalea, 2. beheko - Oriko zutiko  
Tel: 943 133 836  
e-mail: iadslada@hotmail.com

**Oriko Herri Ikastola**  
Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**jaletxea**  
logelak  
**gazteategi**  
Elkano suzua  
943 13 16 06

**BACHEN LOREAK**  
OREKA ENERGETIKOA  
- tratamendu naturalak -  
- orka energetikoki -  
- bachen loreak -  
Itxas Ramonak Huelgori  
Tel: 655 726 291  
email: orokabach@orokabach.com

**Goizeko**  
KAFETEGIA  
943 83 28 55  
Ara Lortxundi, 33 beheko - ORIO  
Autobus parada ondoan

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA  
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

# Komunikaziorako oztopoak

Joan den larunbatean, irailaren 25ean, Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna ospatu zen Bilbon. Horretarako, sentsibilizazio jaialdia egin zuten. Aurten aukeratutako leloa *Nire begiak dira zure entzumena... eta nire eskuak zure ahotsa* izan da. Mota askotako ekimenen bidez gorren kultura ezagutzera ematen saiatu ziren bitartean, aldarrikapenei beren lekutxoaz utzi zioten, baita ere:

Zeinuen Hizkuntza onartu eta komunikazioari laguntzeko neurriak arautzen dituen legea aurrera eramatea da aldarrikapenen funtsa. Badira hiru urte lege hori aurrera atera zela alderdi politiko guztien adostasunarekin, baina pertsona gorrek eguneroko bizitzan aurkitzen dituzten oztopoak ez ditu oraindik guztiz leundu.

Zeinu Hizkuntzan komunikatzea maite dute, desberdina da, baina horren bidez eskuak, aurpegi espresio eta gorputzaren mugimenduetan sentitu edo pentsatzen dutena adierazteko gai dira. Askotan entzuleekin komunikatzen saiatzen dira, baina, berek esaten

duten bezala, tartean adreiluzko horma bat altxatuko balitz bezala da eta komunikazioa bertan behera gelditzen da.



Pertsona gorrei oinarritzko eskubiak ez zaizkie guztiz errespetatzen. Gizartean komunikatzeko arazo handiak izaten jarraitzen dute; adibidez, zerbitzu publikoak ezin dituzte berdintasunez erabili, ikasle gorrei egokitutako hezkuntzak hutsuneak ditu. Lan munduan eta etengabeko prestakuntzan sartzeko muga gaitzietan aurkitzen dituzte; medikuekin, psikologuekin, poliziek, larrialdietarako zerbitzuekin, telebista, kultura, aisia edo kirolerako sarbideekin bezalaxe.

Aipaturiko arazo guztiei aurre egiteko teknologia berriek bultzada galanta suposatzen dute; hala nola, sateleko telefonoak, sms-ak, webcam-ak, messenger-ak, askatasun handia ematen die, baina tramankulu horien guztien gaitzietan interpretaren lana azpimarratu behar harko gaitzietan. Interpretaren eta gorraren arteko komunikazioa zuzia. Horien zerbitzua Administrazioak antolatuta behar luke atal guztietan: osasunean, justizian, udal-letxeetan, Aldundian... Zerbitzuak 24 ordu hartu behar luke, nahiz eta bertaratu behar ez izan aipaturiko tramankuluek lagunduta. Gaur egun, adibide moduan, bi egunetako lehentasunarekin eskatu behar izaten dute gorrek interpretaren zerbitzua, beraz larrialdi baten aurrean *salduta* sentitzen dute beren burua. Orain arte Gorren Federazioek eta hainbat elkarteek ematen dute zerbitzu hori.

Entzule eta gorren munduen artean ezberdintasun handiak badira ere, gauzak pixkanaka hobetzen ari dira. Baliabide gehiago dituzte eta independenteagoak dira, baina ez da nahikoa oraindik, aurrera jarraitu behar dute; hala ere gizartea gehiago egokitu behar da, gizarte osoaren lana da murriztasun bat duten pertsonen begiratzeko, enpatia lantzea, besteen lekuan jartzeko jakitea eta denon artean desberdintasun hori ahultzen joatea, guztiok batera gizarte irekiago bat lortu behar dugu.

Nire honetan  
Jabier Zabaleta

## Sineskeria berriak

Han eta hemen, gero eta ugariagoak dira tarot irakurleak, astrologoak, espiritistak eta bestelako ke-saltzaileak. Elizak hustu ahala betetzen dira horien kontsultak. Sineskeria sineskeriaren truke.

Orion gutxitan izaten da kultur ekitaldietan maiztean Mandalara elkarteak antolatutako hitzaldian adina jende; gaia espiritismoa zen eta hizlaria *medium* ezaguna omen zen, hildakoekin komunikatzen iaioa oso. Ikastolako aretoa leporaino bete zen... eta sarrerak 5 euro baliorekin! Ikasturte honetan, bestalde, aukera daukagu ikastaro mordoxka bat egiteko tarotari, astrologiari, Bachen loreei edota *sendatze holistikoari* (?) buruz.

Kezkagarria da sineskeria berrien indarraldi hau, baina ez neukan asmorik gaia aukatzeke zutaberako (*bizi eta bizitzen utzi ez da lelorik txarrena*). Aste honetan, hala ere, aukera izan dut *Passion for Knowledge* jardunaldietan parte hartzeko, Donostian, eta Etxenikeren taldearen zientziarekiko grinak kutsatuta-edo, pentsatu dut merezi zuela gaia plazara ateratzea. Zientziaren ahalmenak guztiz itxuraldatu eta horbetu duen mundu honetan harrigarria egiten da oinarri gabeko sineskerien loraldi hau, eta kontra egin behar zaiola uste dut.

**Aurpegi espresioa eta gorputzaren mugimenduetan sentitu edo pentsatzen dutena adierazteko gai dira gorrek. Askotan entzuleekin komunikatzen saiatzen dira, baina, berek esaten duten bezala, tartean adreiluzko horma bat altxatuko balitz bezala da eta komunikazioa bertan behera gelditzen da**

**ITSASADARRA, S. L.**

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria  
finika administratzailea  
gestoria  
empresak borriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 25 - Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com  
Itai Ondo 4. behea. 20510 Orko



Joana Murgiondo  
Aseguru-egilea



**iñaki argazkiak caperochipi**

ezkontzeko asmorik bati

www.ikapero.com/ezkontzak  
659378753  
ikapero@ikapero.com

**KOLON TXIKI**  
akordeak  
akordeak

Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

*Lizaso*  
dekorazioa

Eusko Gudari, 48  
Tel. 943 83 00 84

**LOBETXU JATEKOA**

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

ardoak, urdaiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino eramaten ditugu**

**943 83 09 84**

aita Iertxundi, 36  
ORIO

**LEIHOLAN**

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Tabrika Agone Industrialdia Agote, 5, 20740 Zarautz

Enkaketak San Francisco, 1, 20800 Zarautz

Aita Lemarell, 21, 20810 Orreaga Tel: 943 09 49 26

aroztegia  
**MIRANDA**  
Arrozak

Garriak eta lathak, eskalera... behar dituz arroz lathak egiteko dirikinetan

Ordazeta bide, 1 - 669 42 32 70 - ZARAUTZ

He apaitdegia  
**MARIJO**

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**LURDES**  
ARRANDEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denotarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 53 59 00

**Nahikari**

HAR DENDA

Arriatzalze kalea, 35  
20800 Orreaga  
Tel: 943 83 26 20  
www.nahikari.es

Orioko Ogia

**ORIOGI**

OPIL OKINOEGIA  
Frontal orrioiari  
Tfnor: 943 83 01 89

**PERTS TANAK**

AKO MAZ

Aluminio, PVC  
Venezianak  
Matarrak...

Tel: 943 13 29 01 Magistorra 600 70 52 27

FISOTERAPIA, Ginko In Arriatzalze eta Natasa Winesoren  
NUTRIZIONISTA, Gemate Argara

**sinergia** investigación fisioterapia

Ibañondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

**Joseba Ostolaza TAXIA**

24 ORDUKO ZERBITZUA  
TF: 646 510 288

Baxoalde, 9  
ORIO

**TAILER MEKANIKOA MANTEROLA S/L**

TROVOKAK - BAIBUIAK

Santiago ezuzoa - 18 postakutua  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: tmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

ABRVA  
R  
190 8000

Esferako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

## Gaia emanda Beharrezkoa al da Udalaren eta Ikastolaren arteko hitzarmena?

### Hezkuntzako diru-laguntza, denentzat

**T**railaren letik zabalik dago Udalaren Hezkuntzako diru-laguntzen programan parte hartzeko epea. Programa honen bidez herriko lau zentroei lagunduko zaie, hezkuntza, kultura eta kirolaren eremuko jarduerak egiteko, heziketaren kalitatea hobetzeko helburuarekin: Maria Maestra Haurreskola, San Nikolas Haurtzaindegia, Zaragueta Eskola eta Herri Ikastolari. 2010-11 ikasturterako 77.000 euro jarri ditu Orioko Udalak. Dirua eskola bakoitzeko ikasleen kopuruaren arabera banatuko da. DBHkoei diru gehiagorekin lagunduko zaie. Lehen Hezkuntzako ikasle bati %100 badagokio, bi urte bitarteko haurrari %60 eta Orion ikasten ari den DBHko ikasle bakoitzari %140. Arrazoi horrengatik, eta Ikastolan besteetan baino ikasle gehiago dabilelako, programako diru gehiena ere Ikastolarentzat izango da.

KARKARAREN galdera hau da: zergatik ez hitzarmen bat Udalak propio Ikastolarekin? Erantzun dezagun: Udalak hezkuntzan duen betebeharrak bakarra da, legeak aginduta, ikastetxe publiko(ar)en mantentzea. Orion, beraz, Maria Maestra Haurreskola eta Zaraguetarena du. Horixe bete behar du. Ez besterik. Orduan, zein arduratzen da Ikastolaren mantentzeaz? Ba, gainontzeko eskola kontzertatuen kasuan bezala, Hezkuntza Saila. Haren eskumena da hori, haren ardura eta haren betebeharra. Eta Hezkuntza Sailak ordaintzen ditu, urtero, Orioko Ikastolaren mantentze- eta funtzionamendu-gastu arruntak. Ikastetxe kontzertatu guztiei berdin, diskri-

minatu gabe: gela bakoitzeko, horrenbeste. Orioko Ikastolari aurtien 165.156,47 euro eman dizkio kontzeptu horretan. Horrez gain, irakasleen eta beste langileen soldatak ere (atezain, garbitzaile...) Jaurlaritzak ordaintzen ditu. Iaz, denetara, bi milioi eurotik gora eman zizkion Ikastolari.

**Udalak hezkuntzan duen betebeharrak bakarra da, legeak aginduta, ikastetxe publikoaren mantentzea. Horixe bete behar du. Ez besterik. Orduan, zein arduratzen da Ikastolaren mantentzeaz? Ba, gainontzeko eskola kontzertatuen kasuan bezala, Hezkuntza Saila**

Orain arte Udalak ere lagundu egin dio Ikastolari, kontzeptu horietako baztuetan, hitzarmen baten bidez; nahiz eta Arartekoak esan zion Udalari ez zeukala hori egiterik: ez finantzatzeko kontzeptu berberetan bi erakundetatik. Oraingo programaren bidez, gauzak bere onera ekarri nahi dira, eta hezkuntzaren kalitatea hobetzeko erabiliko diren diruak herriko zentro guztiei eman, bazterketarik gabe, berdintasun-printzipioa betez. Udalak ezin du ikastetxeen arteko lehian sartu eta haietako baten alde egin, ezerengatik, euskararen ize-nean ere ez. Herriko bi eskoletan euskara hutsean erakusten da. Hortaz, laguntzekotan, denei lagunduko behar die.

Zer gertatzen da beste herrietan? Orain Orion bezala, herri ia denetan, eskola publikoaren mantentzearen arduraz izateaz gain, Udalak, laguntzekotan, denei laguntzen die. Orioko programa Arrasatetik ekarria da, hangoa da, Oriora egokituta. Han 21.000 biztanle izanda, iaz 169.000 euro eman zuten ikastetxe guztientzat. Proporzioan, Orion baino askoz gutxiago. Zarautzen antzeko programa dute, baina 27.000 eurokoa. Donostia osoan, 127.000 eurokoa...

Udalak, herriko ikastetxeak diruz laguntzeaz gain, hezkuntza komunitatean bakea eta giro lasaia sustatu behar du, eskolen arteko harremanak bideratuz eta, bateko eta besteko ikasleak hurbiltzeko, kultur eta kirol-guneak sortuz. Diru-laguntza programa hori pausu bat izan daiteke bide horretan.

Orioko Udala



Zaragueta  
Eskola Orioko

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



WEB  
DISEINU  
PROGRAMAZIOA  
JON CERREZO DUTAN

TEL: 691-31-22-40



azkue  
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7  
20809 Aia-Orio  
T/fax: 943 83 51 86  
Carroceriasazkue@hotmail.com



Disko berria plazako eszenatokian aurkeztu zuen Gozategi taldeak Orioko San Pedro festetan. KARKARA

# Haize berriekin, Gozategi

## Kritika Bizi-bizi

**Gozategi taldearen diska berria**, 'Bizi-bizi' Orioko plazan aurkeztu zuen 2010eko ekainean.

**K**ARKARAN iragarri zen *bizi-bizi* zeto-rrera Gozategi taldea disko berriarekin eta halaxe da, sekulako martxa du taldearen azken lanak. Orain arteko esentziari eutsi diote, baina tronboia eta tronpetaren ukituak indar berezia gehitu dio Gozategiren estilo propioari.

Kantuen hitzak egungo egoerari kritika zorrotza egiten diete hainbat piezatan,

baina beti ere umoretsu eta hitz joko paregabeak erabiliz. *Nafarroa bizirik* herri baten historia maite dutenentzat, *Jon uein* istorio xeble batekin nola politikari bat kritikatu entzun nahi duenarentzat, *Madrilgo postalak* preso baten sentimenduekin hunkitzeko...

Musika... entzun eta segituan asmatuko genuke Gozategi dela, baina ondo fijatuz gero, berrikuntza asko ditu. Kuriosoena agian, arin-arina eta reggaea nahasten diren *reggaerin-arin* abestia. Lan aparta benetan.

Baina taldean zerbait aldatu bada nabarmen, hori zuzeneko da. Joseba Aparicio eta

Iñigo Perona dituzte lagun gozategitarrek eta, kanta berriez gain, aurreko diskoetan kaleratutakoetan ere sartzen dituzte haizezko instrumentu *metaleroen* doinuak.

Bizi-bizirik lana kaleratu denetik, kontzertu guztiak jendetsuak izan dira, eta gainera, publikoa lehertzerari iritsi da Gernika, Bilbo, Gasteiz... bezalako plazetan. Hurrengoa asteburu honetan bertan izango dute, Lezon, Kilometroak 2010 jaietan, 17:30ean eta lehen gunean. Formazio berrian ikusi ez dituenak aukera ona, bide batez, ikastolei laguntzeko.

IKER GURRUXAGA

**Ikasleak idazle**  
Mikel Etxarri

## Institutura bidean

**Z**aragueta eskolan primeran ikasten dugu: giro goxoan, ingurugiro bikainean... Orioko eskola publikoan ikasitakook, 12-16 urte bitarteko ikasketak egiteko, Lizardi institutura joaten gara. Datorren ikasturtean niri tokatuko zait aldaketa egitea; horregatik, anaiarekin berriketan aritu naiz.

Berak esan bezala, oso etapa ezberdina da:



arlotu berriak, instituturainoko bidea luzeagoa, jende gehiago dago, arlo bakoitzaren irakasle ezber-

din batek ematen du, etxerako lanak egunero izaten dira eta denbora gehiago eskatzen du, azterketak maiz egiten dira eta arlo guztietan izaten dira.

Hori dela eta, Zaraguetan ikasten dena ondo aprobetxatuko dut, horrela segurua sentituko naiz, bai maila akademikoan, bai sozialean.

**Eskolan ikasten dena ondo aprobetxatuko dut eta horrela seguruago sentituko naiz**

**RAMIRO**  
argazkiak  
ezkontza erreportajeak  
600 eurotik gora  
943 83 10 48 / 610 697 668  
www.fotoramiro.com

**Sagasti**  
LEIHOAK  
NEREA MIRALLES  
Tf / fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 65  
20810 Orrio (Gipuzkoa)

## » HANDIK ETA HEMENDIK

“

Gantxo ona izan daitezke besoetako muskuluak, eta beste nonbait ere muskulu handia duzula esan (...) Mugimendua izateko ez da itsasora irten beharrik, lehorrean ere nahikoa balantza eta buelta izaten

da askotan (...) Sarritan izaten ditut amets erotikoak, errealitate bihurtzea hobea da, ordea! Dena ez dugu esango, intriga pixka bat gordetzea komeni izaten da...”

Josu Larrarte, arraunlaria, 110. Gaztetxuloko sexelkarrizketan

## » OSPAKIZUNA



## Angel eta Rosario

Urrezko ezteiak egin berri dituzte Angel Mierak eta Rosario Atorrasagastik. Izan ere, 1960. urteko irailaren 24an ezkondu zen bikotea eta orduz geroztik familia ederra osatu dute: hiru seme-alaba eta lau iloba dituzte. Argazkian bertan ikus daitezke denak, San Martin ermitaren atarian, Angelen eta Rosarioren ezteiak ospatzeko meza ostean. Ondoren, Altxerri jatetxera joan ziren denak.

## » ZORIONAK!

## Idoia Etxeberriari

**H**obetzeko zaila izango den marka jarri du Idoia Etxeberria ortzaikarrak; 138 kiloko harria sorbaldan berdinduta, emakume batek inoiz altxa duen harririk astunena da, alde batetik; eta 5 aldiz jasota, inoiz altxa duen pisurik gehiena ere bai.

Emakume gogorra eta indartsua dator Etxeberria, kirolari handia. Iaz, garai haue-tan, 4 aldiz jaso zuen 120 kiloko harria, orduko errekorra jarritz. Urtebete beranduago marka hori hobetu du.

Gaztea da Idoia eta hobetzeko tartea ere berez behar du, gainera. Bide beretik jarraituz gero, atal honetara askotan ekarriko dugu, seguru asko, etorkizunean ere Ortzaikakoa.

**TANATORIO ZARAUZ**  
EURIPTINERARIAS TALDEA  
Hileta eta zerbitzu orokorrak

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Altxorako zerbitzua
- \* Belatorio gelak
- \* Koroak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35. Zarauz  
Tel: 943 89 48 20 / Fax: 943 89 48 44  
e-mail: harrizgi@tanatorio.net

**SOLOZABAL**  
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ez  
telefon: 943 83 08 12

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta erreturak

fer.uranga@euskalnet.net  
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

**IZARRA BIDEA**  
Artaleaga 15, Orreaga 943 83 38 81

ETORRI DA BERRIZ  
ETXETRESNEN RENOVE PLANA

Producto  
**RENOVE**  
TIEN 21

Zatoz eskaintza berriak ikustera

**10 HILABETE INTERESIK GABE**

# Arte Ederretako urrezko domina jaso zuen Oteizak

## Duela 25 urte 1985eko urria

**E**spainiako Juan Carlos Erregeak emanda, Arte Ederretako urrezko domina jaso zuen urriaren 29an Jorge Oteiza eskultore oriotarrak. Madrillgo *Museo del Prado*n izan zen ekitaldia eta guztira, 11 artistari eta 2 kultur talderi eman zitzaizkien oroigarria, Juan Carlos eta Sofiaren begiradapean.

Ondozek zegoela-eta, ez zen saria hartzera joan Oteiza; bere lagun min eta seme ponteko Diego Fullahondo bidali zuen Espainiako hiriburura, artistaren mezua besapean. Oteizak agindu bezala, jendaurrean irakurri zuen Fullahondok oharra: bizi den artean omenaldiak jasotzearen aldekoa izan ez arren-eta

# (1985)

hasieran, Arte Ederretako dominari ere uko egitea pentsatua zuela aitortuta-kasu honetan, sarituen izen-abizenak ezagutu ondoren, pozik eta esker onez jasoko zuela adierazi zuen Oteizak: *Arte garaikideko pertsona ospetsurik garrantzitsuenetarikak, ezkerreko borrokalariak eta, tartean, lagun onak daude gorazarre honetan eta neuri ere saria ematean, Errepubli-*

*kako euskal artisten abangoardia gogoratzen eta dohatzen ari gara.*

Frankismoko kultura erresistentzian nazioartera zabalduetako euskal eskolako eskultoreak gogora ekartzen ari zirela ere adierazi zuen Oteizak. Bide batez, orduko Euskal Gobernuak kritikatu zuen, kultura politika egokirik ez zuelako eta euskal eskola hori ahultzen, indargabetzen eta galbidera eramaten ari zelako, bere iritziz.

### Herri kirolak

Herri kirolak indar betean zeuden garaiak ziren duela 25 urtekoak. Apustu, desafio, erronka eta kirol senak erakartzen zuen jende asko han eta hemengo probaleku eta plazetara.

Idi-probetan buru-belarri zebiltzan, esaterako, Orioko Alejandro Oliden eta Aiako Jose Albizu *Errotazar*, Franzisko Arzadun *Etxeberrri* eta plazetara itzuli berria zen Antonio Huegun.

Morgako idi-probetan hartu zuten parte, esaterako, orduko probalaririk onenekin, Olidenek eta Huegunek urriaren 13ko asteburuan. Proben lehen egunean, hilaren 11n, jokatu zuen aiarrak eta apustu guztien kontra, eguneko saiorik onena egin zuen, Leon eta Iketza itzai zituela. 52 iltze eta 3,75 metro egin zituen.

Urriaren 13an jokatu zuen oriotarrak. 46 eta 3/4 iltze eta 6,60 metro egin zituzten Olidenen idiek eta laugarren bukatu zuten dema, Jose Antonio Olabarrietaren, Antonio Huegunen eta Olabarrietaren atzetik.

Bustetri-bakarreko erronka egin zuten, berriz, urriaren 19an, Lasarteko Antonio Telleriak eta Jose Albizu *Errotazar* aiarrak. Aiako plazan jokatu zuten, gaueko 22:00etan hasita. 1.250 kiloko harriari tiraka aritu ziren idi pareak. 570 kilo gehiagorekin, baina hiru itzaiekin aritu zen Telleria; 2 itzai gipuzkoar eraman zituen Albizuk, aldiz. Telleria gailendu zitzaion *Errotazarri*.

**Idi-probetan buru-belarri zebiltzan, esaterako, Orioko Alejandro Oliden eta Aiako Jose Albizu Errotazar, Franzisko Arzadun Etxeberrri eta plazetara itzuli berria zen Antonio Huegun**

Urriaren 26an, aldiz, 50.000 pezetako apustua egin zuten Jose Mari Beristain *Erletek* eta Francisco Arzadun *Etxeberrri*k. 30 minutuz eraman zuten 1.250 kiloko harria arrastaka.

## » JAIO TAKOAK

■ Adur Garmendia Leunda, Orion, irailaren 22an.

## » EZKONDUTAKOAK


■ Amaia Olariaga Arruti eta Iban Sanchez de Marco, Orion, irailaren 25ean.

■ Josu Arrillaga Iribar eta Aina Oliden Lizarralde, Orion, irailaren

## » HILDAKOAK

■ Petra Lertxundi Arrillaga, Orion, irailaren 18an. 82 urte

.....  
 .. Eskela edo ..  
 .. urteurreneko ..  
 .. gogoangarria ..  
 .. Karkaran jarri nahi ..  
 .. baduzu, deitu gure ..  
 .. telefonora: ..  
 .. **943 83 15 27** ..



telfax: 943 89 00 69  
 Etxekalka 4 20800 ZARAUZ  
  
**URBIDE**  
 ITURGINTZA BEROGINTZA  
 GASA\_BAINU ERAKUSKETA  
 PROIEKTAZIOA

  
**ZAPATA KONPONKETAK**  
 Zarauzko eta inguruko 1. eta 2. solairuak  
 Larunbatetik 09:00 - 13:00  
 Herriko ospitalearen ondoan

*Sukalde eta bainuen erreformak*  
  
**XANTI MUJIKA**  
**Igeltseritza**  
 699 46 76 21  
 943 13 10 37





JOANNA DOMINGO

## “Bidaiatzeko modu orekatua iruditzen zait bizikletarena”

### Joanna Domingo

Bidaiazalea

Bidaia alternatiboak egitea du gogoko gazte oriotar honek. Toki ederrak ez ezik, bidaitarako helburu bereziak ere hautatu izan ditu; oraingoan, ordea, ez tokia bakarrik, bidaiatzeko modua ere ezohikoa izan da: Zimbawera joan da bizikletaz bidaiatzera.

#### IRATI AGIRREAZALDEGI

Bizikletaz hainbat urtetan bidaiatu duen talde batekin elkartu eta horrela ezagutu ditu Joannak Zimbaweko (Afrika) hainbat txoko. 10 lagun ziren taldean, tartean 4 oriotar.

#### Nolatan joan zara Zimbawera?

Urtero gustatzen zait bidaiaren bat egitea, baina bidaia konbentzionalek ez naute erakartzen. Iaz Nikaraguan izan nintzen GKE batekin bertako komunitateen artean nekazal turismoa bultzatzeko helburuarekin.

Aurten Afrika ezagutzeko gogoan nuen eta Tanzaniarako ideia neukan. GKE batekin joateko hizkuntza zailtasunak zirela eta ez nintzen ausartu eta bidaia agentziaren eskaintza ere ez zitzaidan gustatu. Plan horren berri izan nuen eta joatea erabaki nuen.

#### Bidaia bizikletaz egin duzue, ezta?

Bizikletaz bidaiatu dudan lehen aldia izan da. Oso modu egokia eta orekatua iruditzen zait bizikletaz bidaiatzearena. Batetik, naturarekiko gertutasuna sentitzen da paisaia aurrez aurre dagoelako une oro; bestetik, ederra da norbere baliabideekin herrialde bat pedal kolpez ezagutzen joatearen sentsazioa. Inprobisazioak ere badu tartea, etapak finkatuta izan arren, bidean aurrera joan ahal, moldaketak egin ditugu.

#### Zer moduz moldatu zarete?

Primeran. Denetariko bideetan ibili gara: asfaltoan, lurrian, hartxintzarretan, hondarretan, aldapetan, ordekan... Batzutan gogorra, bestetan neketsua baina beti ederra izan da. Hilabete osoko bidaia izan arren 13 etapa egin ditugu eta tartean safariren bat egin dugu, hainbat txoko bisitatu... Egunean batez beste 75 kilometro egiten genituen, baina, esaterako, etaparik laburrena gogorrenetakoa izan zen hondarrarengatik, bizikleta hondoratu eta eskuan eraman behar izan genuen bultzaka. Taldean, berriz, oso ondo moldatu gara. Esperientzia handiko jendea zegoen tartean eta horrek gauzak asko erraztu ditu, arazo teknikoen aurrean, adibidez.

#### Nola hartu zaituztete hango herrietan?

Herrietatik pasatzen ginenean, taldean, alforjekin... jendeak harrituta begirtzen zigun eta galdetzen ziguten ea GKE bat ginen. Ia herrialde osoan ez dago turismo baliabiderik, beraz, iritsitakoan galdetzen genuen ea eskoletan-edo lo egiteko aukerarik ba ote genuen; gehienetan uzten ziguten, beraz, han jartzen genituen kanpin dendak. Jatekoa berek prestatzen ziguten (arroza eta oilaskoa) eta garbitzeko ere beti lortzen genuen ura eta ontzi bat dutxa azkar eta lagungarri bat hartzeko. Oso jende jatorra aurkitu dugu, adeitsua, esku zabala, irekia eta jakinminez bete. Galdera asko egin dizkigute, gure nondik norakoak jakin nahi zituzten.

#### Berriz bizikletaz bidaiatuko al duzue?

Talde jator honekin bidaiatzeko gogoan badut, baina ikusi beharko dut nora joaten diren eta horren arabera eta nire asmoei erreparatuta erabakiko dut. Bidaiatzeko beste modu bat eman dit bizikletak, asko gozatu dut pedalei eragiten, askatasun handia eta erritmo polita ematen du bizikletak parajeak eta edozein herrialde ezagutzeko.

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz

(943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com.

Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Alokairua**

■ Pisukide bila nabil, Orioko Abeslari kaleko etxe batean bizitzeko.

Tf: 691 31 22 40 (Jon).

■ Etxebizitza berria alokatzeko, Armendigain kalean, Aian. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta jan-gela ditu. Tf: 629 68 04 10.

■ Orion alokatzeko pisu bila nabil, urte osorako. 676 28 25 88 edo, lan orduetan, 943 83 15 18.

**Salgai**

■ Garaje bikoitza salgai Erribera kalean. 38 metro koadro. 63.000 euro. Tf: 636 38 66 63 / 607 58 08 41.

■ Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 90 04 23.

■ Etxea salgai Eusko Gudarin. Handia eta go-

xoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

**Galdutakoak**

■ Belarritako biribilak galdu nituen irailaren 25ean, Arkaitz tabernaren parean. Oso maiteak ditut eta aurkitu dituenak dei dezala mesedez 600 71 92 51ra.

■ Sakelako telefono bat agertu zen Orioko kultur etxean duela 15 egun. Jabeak bertan jaso dezake.

■ Hondartza inguruan hartza itxurako panpin arroxak bat galdu dut. Oso gustukoa du eta aurkituz gero 650 45 08 69ra deitu, mesedez.

**Lan eskaintzak**

■ Ingeniari teknikoak haur eta gaztetxoentzat

klase partikularrak eskaintzen ditu.

Tf: 608 16 49 71 (Amaia).

■ Pertsona euskalduna eta arduratsua behar da Debagoieneko enpresa batean kudeatzaile aritze-ko. Ordutegi malgua; etxetik egin daiteke planifikazio lana; kilometrajea ordaintzen da. Soldata oso erakargarria. CV-a eurekdesign@gmail.com era bidali.

■ Orion bizi den emakume marokoarrak lan egin nahiko luke etxeak edo lokalak garbitzen, edade-tuak zaintzen edo jatetxe edo taberna bateko sukaldetan laguntzaile moduan. Garbiketa lanetan eskarmentua badu. Tf: 667 91 53 98.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	09:33 eta 22:20	03:26 eta 15:54	☾
02	11:10 eta 23:55	05:31 eta 17:43	☾
03	12:58 eta ____	06:16 eta 19:34	☾
04	01:48 eta 14:16	08:09 eta 20:37	☾
05	03:07 eta 15:26	09:22 eta 21:40	☾
06	04:01 eta 16:17	10:13 eta 22:29	☾
07	04:45 eta 17:00	10:55 eta 23:11	☾
08	05:24 eta 17:40	11:34 eta 23:49	☾
09	06:01 eta 18:18	12:10 eta ____	☾
10	06:37 eta 18:54	00:27 eta 12:46	☾
11	07:11 eta 19:31	01:03 eta 13:21	☾
12	07:46 eta 20:07	01:39 eta 13:56	☾
13	08:20 eta 20:46	02:15 eta 14:32	☾
14	08:56 eta 21:31	02:53 eta 15:11	☾
15	09:38 eta 22:33	03:37 eta 16:30	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

URRIA

- 1ean, Etxeberria.
- 2an eta 3an, Zulaika.
- 4an, Iriarte.
- 5ean, Larrañaga.
- 6an, G. Artiñano.
- 7an, Etxeberria.
- 8an, Azaldegia.
- 9an-10ean, Mutiozabal.
- 11n, Larrañaga.
- 12an, Iriarte.
- 13an, Etxeberria.
- 14an, G. Artiñano.
- 15an, Azaldegia.
- 16tik 22ra, Lasa.
- 23an eta 24an, Iriarte.

- **Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoakalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>12:41</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>	<b>22:45</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	22:30
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



## Bingoa

Udako oporrak bukatu ondoren, urriaren 6an hasiko dituzte bingo saioak Orioko jubilatuek eta pentsionistek. Asteazkeneko-asteazkeneko zenbakien eta bingo eta linea oihu artean ibiliko dira Orioko kultur etxeko areto nagusian, 16:30etik 18:30era bitartean. Lagun artean, bi ordu entretenigarri pasatzeko aukera eskaintzen diote, beraz, Zaharren Babes Lekukoek bertaratu eta berekin jolastu nahi duten guztiak.

bakoitzaren prezioa: 40 euro.  
 ■ Urriaren 2an, Herriko Plazan erretako txahal pintxoak. 12:00etatik aurrera. Prezioa: 2 euro.  
 ■ Lekua hartzeko: 943 83 09 04 telefonora dietu -10:00etatik 14:00etara/16:00etatik 20:00etara- edo [turismoa@oriokoudala.com](mailto:turismoa@oriokoudala.com) helbidera idatzi.

## Orio

### Musika

■ Urriaren 1ean, Orioko Giranice taldearen zuzeneko kontzertua, 19:00etan, Donostiako Fnac-en.

### Hitzaldia

■ Urriaren 13an, Kutzak antolatuta, gorputza eta espiritua zaintzeko terapia alternatiboa hitzaldia. Hizlaria: Jose Luis Martin Parejo. 19:30ean -ordu eta erdiko saioa-, kultur etxean.

### Erakusketak

■ Urriaren 7a arte, Jon Galdos Kazabon *Jontxu* artista hondarribiarraren *Herri baten jakinduria* erakusketa. 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, kultur etxean.

■ Urriaren 8tik 29ra arte, Merte Bengoetxea artista oriotarraren pintura eta zeramika erakusketa. 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, kultur etxean.

### Traste zaharrak

■ Urriaren 13an, altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira edukiontzien alboan.

### Ikastaroak

■ Urriaren 26tik ekaina arte, sendatze holistikoa irakurtzeko ikastaroa. 19:00etatik 21:00etara, astearteko, Mandalaren lokalean -Iturbide, 7-. Prezioa: saioko 15 euro. Izena emateko: kultur etxean edo e-posta honetan: [mandalarataldea@gmail.com](mailto:mandalarataldea@gmail.com)  
 ■ Urriaren 9tik 17ra bitartean an, medikuntza germaniko berriari buruzko Hamer dok-

torearen mintegia. Egutegia, 10:00etatik 17:00etara (bazkaltzeko ordubeteko atsedenaldia), kultur etxean. Prezioa: 650 euro. Informazio gehiago 653716396 telefono zenbakian.

### Kirola

■ Futbola: urriaren 2an, preferentean. Zestoa-Orio; jubenilen lehenengo kategorian: Orio-Usurbil; kadeteen lehenengo kategorian: Mutriku-Orio; infantilen ohorezko kategorian: Orio-Zarautz; emakumezkoen jubenil kategorian: Eibar-Orio.

### Txuleta festa

■ Urriaren 1ean eta 2an, Orioko eta Tolosako Udalek antolatuta, Txuleta Festa Orion. Afaria ostiralean; afaria eta bazkaria larunbatean. Txartel

### Bestelakoak

■ Urriaren 1ean, euskal presoak Euskal Herritarzearen aldeko elkarretaratze isila. 20:00etan, herriko plazan.

## Aia

### Podologia

■ Urriaren 9an. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 1311 44.

### Silo-bolen bilketa

■ Urriaren 12an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu. Telefono zenbakia: 943 81 65 00. Bestela Igorrekin, zerbitzuaren arduradunarekin hitz egin: 660 04 97 51.

# URRITIK AURRERA EZ DUZU AITZAKIARIK...

Aerobik	
Acquaerobik	
Spinning	Gazteen igeriketa
Fisio-osasuna	Gym-jazz
Helduen igeriketa	Funky-hip hop
Rowing	Haurtxoen igeriketa
GAP	Judo
Gihar-tonik	Karate
Edadetuen gimnasia	Haurren igeriketa
Yoga	Igeriketa pertsonalizatua
Pilates	

## BERRIKUNTZAK

Jolasak  
Gazte-dantzak  
Multikirolak  
Areto Dantzak  
Capoeira  
Post-parto

- \* Fisioterapia: urte guztiko zerbitzua
- \* Fotodepilazioa: urrian promozioak
- \* Presoterapia: azaroan promozioak